

ELEKTRONIKA EVERYWHERE: ELEKTRONIKAREN ALDERDI DESBERDINAK EZAGUTU NAHI DITUZU? APARATU BATZUEN FUNTZIONAMENDUA JAKIN NAHI ZENUKE? JOLASTEN AL GARA ELEKTRONIKAREKIN?

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
 - Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Nieves Cano 12, 01006 Vitoria-Gasteiz

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Lana elektronikako laborategian:

- Hainbat komunikazio-protokolo identifikatzea eta osziloskopioan bistaratzea (CAN, LIN, I2C, WIFI, Bluetooth...)
- Hainbat esparrutako mikrotxipak erabiltzea: banku-txartelak, identifikazio-txartelak, joko-makinak, etab.
- Haur-jolas bateko PCB bat diseinatzea, fabrikatzea eta muntatzea (adibidez, operazioa).

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Laborategi elektroniko baten oinarrizko ekipamenduaren azalpena (multimetroa, elikatze-iturriak, seinale-sorgailua, osziloskopioa).

Komunikazio-protokoloen oinarrizko azalpena.

Zirkuitu elektroniko bat sortzeko prozesuaren oinarrizko azalpena.

Zirkuitu elektroniko bat neurtzea eta egiaztatzea.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Laborategiko ekipoen azalpena

Komunikazio-protokoloen osziloskopioarekin neurtzea

Zirkuitu elektroniko bat duen jostailu bat sortzea:

- Elektronikako oinarrizko kontzeptuak azaltzea.
- Zirkuitua ordenagailuan simulatzea
- Zirkuituaren beraren PCB diseinua
- Zirkuitua muntatzea

- Zirkuituaren funtzionamendu praktikoa

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-13	Gaztelania	Goizez	09:00-12:00	24
2025-01-17	Euskara	Goizez	09:00-12:00	24